



Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria
2022ko urria • 391 alea



'PLACENCIA DE
SORALUZE'

**ERDI AROKO
HISTORIA LIBURUA
ONDU JABIER
ELORTZAK**

EUSKARALDIA

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra

Txapak jaso: azaroaren 7tik aurrera
goizetan udaletxean eta arratsaldeetan
Santa Anako lokalean

Izena eman:
euskaraldia.eus





PIL-PILEAN 391

2022ko urria

Azaleko argazkiaren egilea:

Fernan Oregi

Aurkibidea

- | | | |
|----|--|--|
| 4 | Elkarrizketa Xabier Aierdi | IRITZIA |
| 6 | Begira 'Soraluzeko kaleetan beldurrik gabe' | 3 Neuretik Beatriz Akizu <i>Egoeraren kontzientzia kritikoa</i> |
| 8 | Zer berri Aktualitateko albisteak | 18 Gutunak Sonia Laskurain <i>Cañones bota eta kiroldegia egin eta Nikanor Iñurrieta Merlin proiektua. Iritzi ez inpartzialak</i> |
| 14 | Argazki bidez Zuhaitz jendea | 18 Komiki tira |
| 16 | Ugaraxo Eskolako berriak | 19 Hausnarketa Elkarretaratze jendetsua egin zen urriaren 21ean, Soraluzeko kaleetan beldurrik gabe lelopean. |
| 20 | Erreportajea Jabier Elortzak 'Placencia de Soraluze' liburua idatzi du | 19 Puntua Garazi Arizaga <i>Egon gaitezen adi</i> |
| 28 | Kirola Antxintxika lasterketa, Marras Irristaketa Taldea eta Bankoa-Abanca DV torneoa | |
| 30 | Kultura Blues Hotsak jaialdia | |
| 32 | Sakonean Esther Cruz Iglesias | |
| 34 | Zerbitzuak Zorion-agurrak, oroitzak, iragarki laburrak... | |



Pil-plean herri komunikabidea

TOKIKOM

Argitaratzailea

Pil-plean Euskaltzaileen Topagunea
Errabal kalea 15-1, PK 27
20590 Soraluze

Erredakzioa

Ubane Madera
ubane@pilplean.eus
Egoitz Unamuno
egoitz@pilplean.eus
605 706 086

Publizitatea

publizitatea@pilplean.eus

Zuzentzailea

Miren Gallastegi

Diseinua

Goiena
Oier Larreategi (moldaketak)

Maketazioa

Oier Larreategi

Inprimategia:

Gertu Koop.

Banaketa:

Pil-plean Ekoizpena

Lege Gordailua:

SS-537-2000

Tirada:

2.100 ale

Babesleak



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



**SORALUZeko
UDALA**

Egoeraren kontzientzia kritikoa



BEATRIZ AKIZU

Lehen pandemia, orain gerra. Saltzen diguten etengabeko salbuespen-egoerari erantzun beharrak, desmobilizazioa eragiten du. Herritarrei gaitasun erresiliente amaigabea eskatzen zaigu, ongizate-estatua ahultzen den bitartean eta sistema zalantzan jartzeko tresnak eskuratzeko gaitasunak blokeatzen diren bitartean.

Erabakiaren desjabetze garai batean sartuta, herritarren erabakiaren garrantzia eta eragina gero eta txikiagoa da. Zein punturaino posible den, bideragarria den demokratizazio prozesuetan aurrera egitea hausnartu beharra dago blokeo mobilizatzaile honetatik irteteko.

Hobekuntza demokratikorako mekanismotzat hartzen diren prozesu parte-hartzaileak agertzen ari diren une honetan, erakunde publikoek bultzatutako prozesu parte-hartzaileen eklosioa dagoen momentu honetan, ordea, badirudi mobilizazio soziala baztertuta dagoela. Herritarren parte-hartzeak botere-harremanak eraldatzen eta herritarrek ahalduztzen laguntzen du, baina baldintzatzaile eta muga argiak ditu.

Erakundeen partaidetza-prozesuek muga garrantzitsuak dituzte herritarrek ahalduztzeko eta komunitate baten botere-harremanak eraldatzeko gaitasunari dagokionez. Muga horiek instituzioari berari boterea kentzen dion herritarren botere baten sustapen instituzionalaren paradoxarekin lotuta daude. Botere horri eusten dion boterearen ikusmoldeak baldintzatu egingo ditu partaidetza-prozesuen ondoriozko eraginak eta eraldaketak.

Herritarren parte-hartzearen dimentsio eraldatzailea eta ahalduztzailea indartzeko, beharrezkoa da ahalduztzea erraztuko duten ekosistemak sortzea, kontzientziazio-estrategiak txertatzea eta ebaluazio-mekanismoak sartzeko, lortu nahi diren eraldaketetan eta ahalduztzean oinarrituta. Egoeraren kontzientzia kritikoa piztea da ahalduztzea, eta horretan, ahalduztzeak dakarren gatazka onartzea. Barneratu dezagun gatazka ere demokrazia ulertzeko era horretan. Barne hartu mobilizazioak daukan balioa, gizarte ekimen autonomoak daukan balioa, eta honetan, ez ikusi gatazka arazo bezala, baizik eta elementu zuzentzaile bezala, edo berritzaile bezala, hortik etorriko delako demokraziaren garapenerako garrantzia.

**"BARNE HARTU
MOBILIZAZIOAK DUEN
BALIOA, GIZARTE
EKIMEN AUTONOMOAK
DUEN BALIOA"**

“Immigrazioak hil ala biziko atakan jarriko du euskara”

XABIER AIERDI SOZIOLOGOA (BEGIRUNE FUNDAZIOA)

TESTUA ETA ARGAZKIA: EGOITZ UNAMUMO.

Xabier Aierdi soziologoak ‘Immigrazioa eta euskararen erronka berriak’ izeneko hitzaldia eskaini zuen antzokian, Euskal Herriko Euskaltzaleen Topaguneak antolatutako ‘Zubi bat euskaratik’ hitzaldi zikloaren barruan.

Immigrazioak zein eragin izango du euskararengan?

Datozen urteetan Euskal Herriaren osaera demografikoa asko aldatuko da. Pentsatu behar dugu hurrengo 30 urteetan 400.000 pertsona beharko ditugula gure lan eremurako eta, horren eraginez, Euskal Herria oso ezberdina izango dela. 2050erako gure biztanleriaren laurden bat immigrantea izango da eta horrek euskarari hil ala biziko erronka planteatzen dio.

Gainera, etorriko diren pertsonen artetik oso gutxi izango dira hezkuntza sistematik pasatuko direnak, %13a, gainerakoak hogeita bost urtetik gorako helduak izango dira eta belaunaldi horrek ez du bat egingo euskararekin eskolan, ez du euskara aurkituko bere egunerokoan. Gainera, asko gaztelaniadunak izango dira eta jende horrek hemen bizitzeko ez du euskara jakiteko beharrik izango.

Euskarak baditu lehendik problema handi batzuk eta datozen urteetan migrazioaren eraginez problema horiek areagotu egingo dira. Pertsonen etorrera oso handia bada, euskarak atzera egin dezake zenbakietan eta horrek zenbait sektoretan atsekabe sentimendua areagotu dezake, baita immigrazioaren aurkako jarrerak ere.

Aurkako jarrera horiek zergatik ez dira egokiak?

Errealitatetik kanpo kokatzea delako. Immigrazioa premia estruktural bat da gure gizartean, momentuz zaintzaren arloan baina laster industrian ere beharko dugu. Demografia eskasa daukagu eta horri aurre egiteko bide bakarra immigrazioa da. Behar den zerbait ezin zaizkio atekatu itxi. Jakin behar dugu immigrazioak etortzen jarraituko duela, kopuru handietan gainera. Horren kontzientzia hartzen badugu, gero pentsatu ahalko dugu zer egin eta nola

transmititu hizkuntza. Uste dut oraindik ez diogula daukagun erronkari neurria hartzen, baina erronka ikaragarria izango da.

Auzoko da etorkinak euskarara hurbiltzeko egitasmoetako bat.

Saiakera bat da jendea euskarara hurbilarazteko eta horregatik da inportantea, baina etorkizunean tresna instituzional, sozial eta edukazional handiak beharko ditugu, eta horiek izanda ere, ez dakigu horiekin nahikoa izango den. Uste dut hartu behar dugula kontzientzia erronkaren neurriarena. Oso gai potoloa da eta erantzunak ere halakoa izan beharko du.

Zeintzuk izan daitezke tresna handiago horiek?

Izan daiteke hezkuntzak oso ondo asmatzea, enpresak ere sartzea kontu honetan eta mundu guztiak zeregin bat izatea. Hezkuntza mailan ere segregazioa ahal den neurrian mugatu egin beharko dugu eta guzti honi buelta bat eman beharko diogu, bakoitzak bere esku dauzkan tresnak amankomunean ipinita. Erronka global eta ekologikoen artean hizkuntz ekologia ere badago eta horrek ere inportantzia dauka. Euskara ere sartu beharko da eskarien katalogoaren barruan.

Euskara debalde ikasi ahal izatea ere izan daiteke tresna garrantzitsuetako bat?

Bai, horrelako neurriak ere hartu beharko dira. Etorkinen seme-alabak eskoletan egongo dira eta gurasoek haiei laguntzeko debalde ikasteko aukera bat beharko dute. Hemen gauza askotarako inbertitzen da eta euskararentzako ere inbertitu egin beharko da, dirutza potoloak inbertitu beharko dira. Nerabeentzako programazio kulturala... Mundu bat dago egiteko. Aldi berean, geuk ere mundu bat dugu deskubritzeko. Agian, orain arte, euskaldun petoak egon izan gara pentsatzen besteak direla guregana hurbildu behar dutenak, baina orain tokatuko zaiguna da gure aldetik nolabaiteko desarme unilateral bat egitea eta geu egokitzea dauden diskurtso eta guneetara. Hori zela egiten den? Ez dakit. Lan kolektiboa izan beharko du.



Kezka agerian

ARGAZKIA ETA TESTUA: UBANE MADERA
ZANGITU

Ikusgarria eta deigarria izan zen urriaren 21ean 'Soraluzen beldur barik' lemapean Plaza Berrian egin zen elkarretaratzea. 300 bat herritar elkartuta, aspaldiko elkarretaratzerik jendetsuena bihurtu zen eta anitzenetakoa ere bai, askotariko adin eta esparru sozialetako jendea batu baitzuen. Bertan ziren merkatariak eta tabernariak, helduak, erretiratuak, udal ordezkariak, umeak eta gazteak, gazte asko. Guztiek bat egin zuten sentitzen duten beldurrak eragindako ezinegona plazaratzeko. Plazaratutako sentimenduaren zilegitasunari, bada, herritarren batasunaren indarra gehitu zaio. Orain, egoerari konponbidea ematea falta.





Badator Gaztañerre azoka

Azaroaren 12an, zapatua, egingo da aurtengo Gaztañerre azoka, 26. edizioa.

Ohiko moduan, azaroko bigarren zapatuan egingo da Gaztañerre Azoka bere barazki, ganadu eta artisau postuekin. Barazki postuei dagokionez, aurtengo bi postu izango dira: Arizagarena eta Lezarrena; elaboratutako jakietan, berriz, Egotzako gazta izango da baina ez David Elizbururen eztiak; ganaduetan, behiak, idiak, ardiak eta astoak izango dira baina ez hegaztiak; eta artisauetan, hamaika artisauk eskainiko dituzte euren



2021eko azoka.

eskulanak, Kortaren zurgintza erreminten ondoan. Gainerakoan, San Andresko auzotarrek parrilan erretako haragia eskainiko dute eta sagardo lehiaketa ere egingo da.

Hiru omendu

Aurtengo azokan hiru baserritar omenduko dituzte: Muneta baserriko Magdalena Zubizarreta, Kirueta Baserriko Frantzisko Elizburu eta Osumazpi baserriko Elena Agirregomezkorta, urte luzez merkatu plazan barazkiak saldu ostean aurtengo erretiroa hartu duena.

Dokumentala

Azaroaren 11, egunean, 'GR-282 artzaintza naturbidea' dokumentala proiektatuko da antzokian.

"Ilusio handia egiten dit herriko jendeak nire lana ezagutzeak"

Aurtengo lehen aldiz azokan postua ipiniko duten Elsa Corvo, Lorea Calles eta Julen Mendikute artisauarekin batera, Mayara Zarobe gazteak ere erakutsiko ditu bere lanak: *crochet* poltsak eta *totebag*-ak, enkarguak ere jasoko ditu: poltsak, *totebag*-ak eta erretratuak, grafitoz zein formatu digitalean egiteko.

Artea ogibide

Mayarak, gaur egun, Arte Ederretako gradua ikasten dihardu. Txikitatik marraztu izan du "afizioz", baina Batxilergoan Arteen modalitatea hautatu ostean, argi eta garbi ikusi zuen arte mundutik atera nahi zuela



Mayara, berak egindako poltsarekin.

ogibidea. Hala, duela bi urte, grafitozko arkatzez egindako erretratuen enkargu profesionalak hartzen hasi zen, eta orain digitalean ere eskaintzen ditu. Horrez gain, *totebag*-ak ere pintatzen ditu,

enkarguzko diseinuekin nahiz berak egindakoeekin, eta aurtengo, birziklatutako materialekin egindako 'crochet' poltsak egiteari ere ekin dio. Guztia modu autodidaktan eta asko praktikatuz ikasi duela dio: "Etengabe gauza berriak ikastea gustatzen zait eta, zerbait interesatzen zaidanean, ordu pila ematen ditut".

Normalean, bere eskariak ezagunen edo sare-sozialen bitartez jasotzen ditu, baina aurtengo azokan probatzeko apustua egin du: "Parte-hartzeko irrikan nago, nire lehen aldia da eta ilusio handia egiten dit herriko jendeak nire lana ezagutzeak".

Aurten ez da eztirik izango azokan

David Elizburu eztigileak 25 urtean zehar parte hartu du azokan hutsik egin barik, baina aurtengoan kale egingo du. Daviden esanetan, erleak oso makal daude eta ondorioz, eztia ekoiztea asko zaildu da; "lehen urtean 40 orduko lanaldia eskatzen bazuen, orain 100 ordu sartu behar dira eta ez naiz ailegatzen". Hala, ekoizteko zailtasunak eta asti falta izan dira aurten Davidek azokan posturik ez ipintzeko arrazoiak.

Erleen gainbehera

Davidek dioenez, erleen makaltzea aspaldi hasi zen, baina azken urteotan areagotu egin da: "Duela 40 urte, akaro



David Elizburu Gaztañerre Azokan.

bat agertu zen eta akaro horrek erreginen arrautzetatik proteinak lapurtzen ditu, erle jaioberriei malformazioak eragiten dizkie, erle horiek ez dute produzitzen eta azkenean

erlauntza galdu egiten da. Horrez gain, 2003an, liztor asiarrak zabaldu zen Burdeosko portutik eta, akabatzeko ahaleginak egin arren, hemengo erleen artean sekulako triskantza eragiten jarraitzen dute. Gainera, nekazaritzan erabiltzen diren produktu kimiko eta pestizidek erleek bizitzeko behar duten ingurunea suntsitzen dute".

Davidek gogoan du 1988an, 18 urte zituela, erlezaintzari ekin zionean ere sumatzen zuela erleak makaltzen hasita zeudela, baina garai hartan erlea onahi omen zegoen: "Plazentzian teilatuetan eta horma-zuloetan ikusten ziren. Zer egiten ari gara naturari?".

Bizitza osoa baserrian eman duen emakumea

Magdalena Zubizarreta (Elgoibar, 1937) Muneta baserriko amandrea da aurtengo azokan omenduko duten hiru baserritarretako bat. Magdalena sortzez elgoibartarra da, Armaitxa Txiki baserrikoa, baina Soraluzeko Muneta baserrian bizi da 19 urterekin bertara ezkondu zenez geroztik. Baserrian jaio eta bizitza guztian baserrian bizi eta lan egin duen emakumea da Magdalena.

Baserriko lanetan zaildua

Magdalenak gazterik ekin zion baserriko lanei. 11 urterekin neskame joan zen auzoko baserri batera eta bertan,



Magdalena baserriko atarian.

mota guztietako lanak egiten zituen. 19 urte zituela Soraluzeko Muneta baserrira ezkondu zen eta 20 urterekin ama izan ostean, beste bost

seme-alaba izan zituen. Haurrak hazi zituenean, dagoeneko egiten zituenekin batera, baserriko beste hainbat lanei berrekin zien: ardiak eta behiak jeztea, belarra moztea, soroan eta ortuan jardutea... Bere garaian Gaztañerre azokan postua ere ipini zuen, azokaren hasierako urteetan. Magdalenarentzat "oso egun berezia" izaten zen azoka eguna, barazki, gazta eta ogi egin berria azokara eroan eta saltzeak "ilusio handia" sortzen ziolako.

65 urterekin erretiroa hartu zuen eta ordutik, "inoiz baino hobeto" bizi dela dio, egunero-egunero Karakate aldetik ibilaldia egiten du.

Arrandegia azaroan zabalduko dute

Kooperatibako arrandegia Elgoibarko La Bermeana arrandegiak kudeatuko du eta Maite Laskurain izango da langilea

Azaroaren 2an, eguaztena, zabalduko dute Kooperatibako arrandegia. Oraingo honetan, Elgoibarko La Bermeana arraindunak kudeatuko du Soraluzeko saltokia eta Maite Lascurain (Soraluze, 1979) izango da bertako langilea. Lascurainek astebete eman du Elgoibarko arrandegian lanean, "euren martxa hartzeko eta eurek zelan lan egiten dudana ikusteko", kontatu du.

Ordutegia

Honako ordutegia izango du Kooperatibako arrandegiak: astelehenetan, itxita; martitzenetan eta barikuetan goizez eta arratsalde zabalduko dute kooperatibako ordutegian eta eguaztenetan, eguenetan eta zapatuetan, goizez.



Lascurain eta Moro

Herrian gehiago erosi

Pozik daude Kooperatibako arduradunak zein Maite Lascurain arrandegia zabaldu behar dutelako.

Lascuraini dagokionez, "oso pozik" dagoela azpimarratu du, "herrian lanean" segituko

duelako "ezagutzen" duen jendearekin eta azken 20 urteotan lanbide izan duen ofizioan.

Kooperatibako ordezkariak dagokienez, berriz, Mila Morok ere adierazi du poza: "Gu oso pozik gaude. Uste dugu Kooperatibarendako zein herriarendako, biendako izango dela ona arrandegia zabaltzea. Orain jendea kanpora doa arraina erostera eta behin kanpora joanda, azkenean bestelako erosketa batzuk ere egiten dira herritik kanpo. Arrandegia berriro zabaltzen badugu, uste dugu jendeak hemen gehiago erosiko duela, bai Kooperatiban, baita herrian ere. Bide batez, eskerrak eman nahi dizkiogu Mila Platari, beraren bitartez lortu da-eta La Bermeana arrandegikoa hona etortea".

Ondarrutik eta Bilbotik

Aurrerantzean bada, Soraluzek atzera izango du arrain freskoa herrian. Ondarrutik eta Bilbotik ekartzen dute La Bermeanakoek arraina eta Soraluzeko saltokiarekin, bi halako izango dituzte.

Mendiak mendi izan daitezen

Urriaren erdialdera ehunka lagunek bat egin zuten Elosun, Gipuzkoako Mendiak Aske lelopean, inguruko mendietan, tartean Karakaten, eraiki nahi dituzten zentral eolikoak kontra. Mendiak ez "industrializatzeko" eta "mendiak mendi" izaten lagatzeko eskaerak haizatu zituzten.




Presen gaia mahai gainean

Urriaren 4an, EHUko eta Foru Aldundiko ordezkariak Merlin egitasmoaren berri eman zuten hogeita bosten bat herritarren aurrean

Tailerrean presak botatzeko planteamenduaren zergatiak azaldu zituzten eta ostean, galdera erantzunetarako tartean, debate bizia piztu zen aldeko eta kontrakoaren artean.

Merlin proiektuaren bultzatzaileak azpimarratu zutenez, presak kentzeak "nabarmen hobetuko du ibaiaren egoera biologikoa" eta "uholde arriskua ere murriztuko du". Herritar batzuk arrazoizkotzat eta egokitzen jo zuten



EHUko eta Aldundiko ordezkariak.

proposamena, beste zenbaitek, berriz, presak mantentzearen alde egin zuten, ohartaraziz presak botatzek herriko ondare historiko eta kulturean "atzera bueltarik gabeko galera" eragingo duela. Orain, Soraluzeko Udalarik dagokio erabakia hartzea.

EH Bilduren kritika

EH Bilduk oharra kaleratu du udal gobernuaren kudeaketa kritikatzeko. "Arduraz jokatu eta prozesua lideratu ordez, isilik eta ezkutuan" geratu izana egotzi dio udal gobernuari. Koalizioaren ustez, udal gobernuak ez du sortu "erabakia hartzeko baldintza egokirik" eta, hala, oharrean iragarri du azaroan zehar hainbat ekimen burutuko dituela "herritarrak informatu eta iritzia trukea" ahalbidetzeko.

Espediente zigortzaileak

Hondakinak lekuz kanpo lagatzen dituztenei espedienteak zabaltzen hasi da Debarbarrena Eskualdeko Mankomunitatea

Mankomunitateko garbitzaileek egunero aurkitzen dituzte hondakin poltsak lekuz kanpo Soraluzen; gehienetan, edukiontzien ondoan, baina baita zakarrontzietan ere. Horrez gain, askok ez dituzte hondakinak edukiontzien arabera sailkatzen eta, adibidez, organikoaren edukiontzietan sarri egoten dira birziklatu ezin diren plastikozko poltsak.

Sentsibilizazio eta informazio kanpainak egin arren, egoerak

bere horretan segitzen duela ikusita erabaki du Mankomunitateak espediente zehatzaileak zabaltzen hasia. Prozedura honakoa da: lekuz kanpo lagatako hondakinak arakatuz, ahaleginduko dira hondakinen jabea identifikatzen. Behin hori eginda, ohartarazpena bidaliko diote. Baina ikusiz gero, herritar horrek jokabidea errepikatu egiten duela, bigarrenengoan isuna jarriko diote.

Azaroan Domekak Aterpean

Azaroaren 27tik eta apirilaren 2ra arteko 12 domekatan, umeei zuzendutako jarduerak izango dira Atxolin Guraso Elkartearen eskutik. Sei domekatan jolasak izango dituzte, Domekak Aterpean izenarekin, eta gainerako sei domekatan, berriz, zinema saioak, euskarazko pelikulekin. Saio guztiatarako sarrera doan izango da Atxolin Guraso Elkarteko bazkideendako; bazkide ez direnek, berriz, saio guztiengatik 30 euro ordaindu beharko dute eta zinemako sarrera bi euro izango da.

Bergarako Jardun Euskara Elkartek kudeatuko ditu Domekak Aterpeaneko dinamikak.

Jasotuen plazerna, bertatik bertara



Batzoki
BARTZOKI

egunko menua
saxharatutako
karta eta menuak

opiatelak eta
hamburgerak
ontango bereziak

basila eta
lagun erako
buztarrak

Bereizitako 943 75 20 35

ELIZPE
HORTZ KLINIKA

Zure gurutxo hortz idekia,
puntu puntako teknologekin lan
egiten dugu. C&D Cam sistema
bertatik bertara erabiltzen dugu.

Elizburu, 3 beheko
SOLALLUZE
Tel.: 943 75 25 67
e-mail: elizpe3@igmail.com

Ordutegia:
Astelgehazetik ostiralera
10:00-11:00 eta 16:00-20:00



Txoko

Eguneko menua,
plater konbinatuak,
hamburgerak,
ogitaritakoak,
radioak,
pizkak,
gosiak...

Erakargarri egiten dira
Tel. 943 75 17 00



IZAGUIRRE
Igeltzeritza



Erakikin berriak • Kalitatezko emaitza
Erreforma • Era guztietako igeltzeritza

50 urteko esperientzia • 610 638 913

ARRANO
taberna

Itxari eta gosatu
etxeko pizkak



Etzuburueta 6

KLB6

Kalebarren 6
943 67 71 26
Makina eta makina
modifikazioak

BSB *Papa Joana*
VERO MODA

ISOLID
BONICH

new balance



Hortz klinika

Erakikin 1
Tel.: 943 75 16 13

Javier Alonso
Mediku Odontologoa
K.Z. 48.000.590

30 urte baino
gehiagoko esperientzia

Katia Gustin
Odontologoa
K.Z. 48.001.541

odontologia, protesiak, ortodontia,
odontopediatria, implantak, estetika...
Zerbitzu radiologiko onakorra (DRI):
ekianera, orfito eta baki.



Kontulan

Aholkularitza fiskala • Kontabilitatea
Lan-aholkularitza • Zerbitzu juridikoa
Ticket bai • Outsourcing • Aseguruak

www.kontulan.com

Carpinteria
MANU
Aroztegia

Atariak
Bontakak
Pantakak
Sukaldeak
Tallakak

Manuel Cifuentes
Estazioa 8. barrena • Mug. 636 05 81 25

ION MURGIZU BAKAIKOA
PINTOREA

amurta
dekorazioak
inguruetan

Tel. 943 75 13 24 • Mug. 652 77 70 30



MENDIZABAL
okindegia

Ogi • Prentsa • Gosariak

Astelgehazetik
ostiralera:
08:00 - 13:00
17:00 - 20:00
Larunbetak eta
igandeak
08:30 - 13:15

Kalebarren 10
Tel.: 943 75 13 99



FOGASLER
ITURGINTZA

943 75 16 46 (Soraluze) • 943 71 82 49 (Oñati)
fogasleriturgintza@gmail.com



Soraluze Motor

Mug. 676 556 817 (Aier) • Mendiola ind. 15
Tel. 943 75 21 36 • Soraluze



KM design

Kiru Muntakak

943 76 99 85

kirumuntak@yahoo.es
www.kmdesign.es

Pol. Amilaga 3
BERGARA

■ Diseinu eta Fabrikazio lanak

Sukaldeak
Horma-arrakadak
Logelak
Zorak
Atalak...

■ Arretzeria lanak oro har
■ Instalazioak

Bidelagun euskaltzetasunean

SOMABE
supporting your projects

aras

ALBISUA
S.L.

laibi
ELECTRICIDAD

Hastear da Euskaraldia

Dagoeneko 160 herritarrek baino gehiagok eman dute izena eta 30 entitatek eratu dituzte Ariguneak.

Azaroaren 18an hasi eta abenduaren 2ra bitartean, egingo da Euskaraldiaren 3. edizioa Hitzez Ekiteko Garaia lemapean. Herritarrek Belarriprest edo Ahobizi moduan eman dezakete izena eta entitateek, berriz, euskaraz lasai aritzeko Ariguneak eratu ditzakete, hamabost egun horietan ofizialki ariketa egiteko. Baterako zein besterako izena Euskaraldia.eus webgunean eman behar da.

Txapak azaroaren 7tik aurrera
Txapak azaroaren 7tik azaroaren 17ra bitartean jaso ahalko dira, astelehenetik ostiralera bitartean, goizetan udaletxean eta arratsaldetan Euskaraldiaren Santa Anako lokalean (17:30etik 19:30era). Horrez gain, hainbat egunetan



Euskaltzale boluntarioak.

boluntarioek mahaia ipiniko dute kalean.

Prestakuntza saio laburrak
Azaroan zehar, ordubeteko prestakuntza saio laburrak egingo dira, "roletan sakonduz eta hizkuntz bizipenak

konpartituz, elkarrekin aurtengo ediziorako helburuak zehazteko". Saioen egutegia ondorengoa izango da: azaroak 5 (zapatua) 11:30-12:30, azaroak 8 (asteartea) 18:30-19:30, azaroak 10 (osteguna) 11:00-12:00, azaroak 11 (ostirala) 15:30-16:30 eta azaroak 14 (asteartea) 18:30-19:30. Saioak Santa Anako lokalean egingo dira. Izena emateko, idatzi 688 613 698 telefonora edo soraluze@euskaraldia.eus helbidera.

Testigantza bilketa

Datozen egunetan herriko batzordekideek herritarren hizkuntza testigantzak jaso eta ezagutarazteko lanean jardungo dute: aurreko edizioen ostean izandako lorpenak, aurtengo asmoak, bizipenak... "Ahaleginduko gara ariketak eragiten dituen aldaketa txikien mosaiko zabala irudikatzen eta gizarteratzen, euskaraz egitea erraztuko duten arau sozialak ezartzeko: lehen hitza euskaraz ematea, euskaldunekin euskaraz egitea eta ulertzen dutenekin elkarriketa elebidunak izatea".

Ongietorria hitzez, musikaz eta dantzaz

Joan zen zapatuan, Euskaraldiaren batzordeak antolatuta jendaurreko ekitaldi bizia egin zen Plaza Zaharrean. Herritarren hizkuntza bizipenetan oinarritutako kontakizun fikzionatuak, bertso berriak, zuzeneko musika eta dantza izan zituen osagai nagusi Hitzez Ekiteko Garaia iri ongi etorria emateko ekitaldiak.





Zuhaitz jendea

ARGAZKIAK ETA TESTUA: EGOITZ UNAMUNO.

Domeka goizean, 115 boluntario elkartu ziren Iruren, Eibarko, Elgoibarko eta Sorluzeko Baso Biziak plataformek Lurgaia fundazioarekin batera antolatu zuten landaketan. Eguerdia bitartean, boluntarioek 650 zuhaitz landatu zituzten guztira: lizarrak, haritzak, gorostiak, sagarminak, agina... Illordo baserria baino goraxeago dagoen Urkiza izeneko lursailean (aurretik pinudi izandakoa).

Antolatzaileak oso gustura agertu ziren domekan herritarrek eman zuten erantzunarekin eta iragarri dute azaroan eta abenduan beste bi landaketa egingo dituztela Sorluzen, oraingoan Txurruka bailaran. Azaroaren 20an, Azaliatxo baserriaren lursailetan landatuko dituzte zuhaitzak eta abenduaren 17an, berriz, Azalia baserriaren lurretan. Zuhaitz jendeak badu pozik egoteko motibo bat.





UGARAXO



Herriko zubiak begiratuta, zubi bat eraikitzeko lana eman diete eskolan. Horregatik, asteotan herriko zubiak ikusten eta aztertzen ibili dira laugarren mailakoak.



Bosgarren mailakoek, berriz, Dolmenen Ibilbideko altxorak ezagutu dituzte bertatik bertara, hura ikustera joanda. Bestalde, Udal Liburutegiaren eskutik, idazketa tailerrean ere parte hartu dute maila berekoek.





Seigarren mailakoak esperimentuetan ibili dira buru-belarri, kasu honetan, zelulekin lotutakoak. Esperimentua egiteaz aparte, haren gaineko apunteak idatzi dituzte.



Haur Hezkuntzan, aurtan, 2 urtekoen gelan hasi diren ikasleetako batzuk azaltzen dira argazkian.

GUTUNAK

Cañones bota eta kiroldegia egin**SONIA LASKURAIN JUARISTI**

Bada denbora Cañoneseko fabrika itxita dagoela eta handik egunero pasatu behar dugunok berau jasan beharra izaten dugu. Zergatik? Inork ez duelako haren ardura; partxeoak behin eta berriz egiten dizkiote, baina behar den bezala zaindu eta konpondu edo bota ez du inork egiten. Soraluzeko azken 12 bat urteotako alkateekin behin baino gehiagotan hitz egin izan dut, Cañoneseko bide horretan beti baitugu zerbait. Ez naiz ari egunero eskibatu behar ditugun txakur kaka piloez; horrez gain, egunero jausten zaizkigun adreilu, fatxada zati, kristalez... ari naiz. Norbaitek egunen batean susto bat baino gehiago hartuko du; orduan zer?

Gomendio, ideia edo iritzi bat emango nioke Cañonesen jabe denari edo eta baita gure

Udalari ere. Cañones guztia bota eta bertan kiroldegi eder bat egin, dugunak ez du gehiago hazteko lekurik eta... gainera, badu zer hobetu, adibidez: boxeoko gela eder bat leiho eta guzti (oraingoak ez ditu), pizina olinpiko bat barruan eta haurrentzako txikiago bat aldamenean, kanpoko pizina batzuk (Elgoibarkoen antzerakoak)... zergatik ez? terrenoa badago! Eta kiroldegia dagoen lekuan etxeak egin, batek baino gehiagok nahiko luke hor etxe eder bat.

Merlin proiektua. Iritzi ez inpartzialak**NIKANOR IÑURRIETA**

Bileran bitxia iruditu zitzaidan txostengileetako batek behin eta berriz esatea ezin diogula uko egin proiektu honi. Ondo ulertzen dut, bere iritzia inpartziala da eta ziur aski

egokia. Antzekoa gertatzen zait aurrez aurreko jarrerai buruzko antzeko eztabaidekin, adibidez Irungo Alardean. Judizio sinple eta azkar bat ez da nahikoa errealitate konplexuagoa duten egoera hauetan. Giza jarduera eta erabaki asko ez dira arrazionalak soilik, karga emozionala ere badute. Eta hori da Soraluzen presen desagertu penari buruz batzuek sentitzen duguna. Teknikariarentzat erraza izan daiteke erabakia arrazionalizatzea eta ekologiaren onerako bideratzea. Logikoa da. Soraluzen ez da bizi izan eta ziurrenik ez da biziko etorkizunean, eta proiektu-ondokoaren emaitza berdin zaio. Baina guk hemen jarraituko dugu. Oscar Wildek esan zuen: "Iritzi inpartzialak interesatzen ez zaizkigun gauzei buruzkoak baino ezin dira izan. Horregatik, iritzi inpartzialek ez dute baliorik".

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.000 (espazioak barne).

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena. Gutuna helarazteko bideak: aldizkaria@pilpilean.eus

KOMIKI TIRA



HAUSNARKETA

Elkarretaratzea egin zen Soraluzeko kaleetan beldurrik gabe lelopean**GURUTZE AGIRRE**
PEDAGOGOIA

"Kezka dagoela garbi gelditu da; zelan konpondu beste gauza bat da. Aztertu beharko litzateke zerk eragin duen azken boladan seguruago ez sentitzea. Hainbat faktoreren batura da. Horren harira, osasun mentalari dagokionez, erabateko utzikeria dago".

**TXARO UZIN ETA MIREIA GABILONDO**
DEITZAILEETAKO BI

"Elkarretaratzean emandako erantzunarekin oso-oso pozik gaude, baita gazteak ere. Beldurra dagoela sentitu egiten da. Deserosotasuna ere bai. Eskatu genuen udaletxean asteburu gauetan ere egotea udaltzain edo sereno zerbitzua, baina esan zuten ez dela bideragarria".

**EULOGIO MANCEBO**
UDALTZAINBURUA

"300 bat lagun egon ziren elkarretaratzean; horrek esan nahi du guztiek arazo modura sentitzen dutela gaia. Udaltzaingoaren lana da prebentzioa eta koordinazioa. Zentzu horretan, Ertzaintzarekin koordinazio estuagoa lantzen ari gara".

**IKER ALDAZABAL**
ALKATEA

"Oso kezkatuta gaude. Laguntasun osoa adierazi nahi diegu jazarpena pairatu zutenei eta familiei. Bide judizialari ekin diogu alderdien adostasunez, epaileak segurtasun neurriak har ditzan. Udaltzaingoa elkarlanean ari da Ertzaintzarekin segurtasuna bermatzeko. Eskertu nahiko nuke heritarrek erakutsitako ulermena eta elkartasuna".

PUNTUA

**GARAZI ARIZAGA****Egon gaitetzen adi**

Lehen mailako arretako sendagilea naiz eta, gaztea izanda ere, lanaz nekatuta nagoela aitortzen dut. Prebentzio eta lan komunitarioetarako motibaziorik gabe, alegia. Baina zergatik? Bada, agendak gainezka izateagatik. Egia baita mediku falta dagoela. Baina ez ditu pandemiak irentsi, ez, urteetan behar baino jende gutxiago formatzeagatik gaude gaur horrela.

Greba egin dugu, baina ezer gutxirako balio izan du, momentuz. Are gehiago, bada greba egin izana leporatu didan pazienterik ere! Hori bai, berrietan titularrak bestelakoak dira. Plaza gehiago aterako dituztela, "carrera profesional" delakoagatik zorra ordainduko dutela... Publizitatea. Plazak profesionalez betetzea da benetako arazoa. Behin betiko konponbidea formakuntza plazak areagotzea da eta, bitartekoa, nonahitik medikuak e(ra)kartzea.

Zer esanik ez azkenaldiko seguru pribatuen iragarki olatuaz. Edozein sintoma duzula ere, ehunka froga diagnostiko egingo dizkizutela esanaz, produktua saldu besterik nahi ez duten horiena. Beldurra da euren arrakastarako gakoa. Eta, tamalez, beldurra daukagu... Beraz, egon gaitetzen adi eta gogoratu: badatoz infrasoinuak sumatzen ez ditugunak...



"Hiri Gutunaren kopia ere badakar liburuak, primizia modura"

JABIER ELORTZA MAIZTEGI HISTORIALARIA

Jabier Elortza (Soraluze, 1953) *Placencia de Soraluze* izenburuko liburuari azken ikutuak ematen dihardu, udazkenean argitaratzeko asmoz. XIV. mendetik XVI. mendera arteko Soraluzeren historia batu du bertan. Azken lan horrekin, Markinako Lurraldeko parte ziren hiru herrien Erdi Aroko historia jaso du hiru liburutan. Testua: Ubane Madera Zangitu. Argazkiak: **Fernan Oregi eta Ubane Madera.**

Behe Erdi Aroan, Soraluze Markinako Lurraldeko parte zen. Markinako hirukia osatzen zuten Eibarrekin eta Elgoibarrekin batera, elizaren orduko lurralde-zatiketek horrela aginduta. Jabier Elortza orain dela 25 bat urte hasi zen hiruki horren gaineko informazioa eta dokumentazioa batzen. Liburu forma eman eta 2001ean, *Eibar: Orígenes y evolución. Siglos XIV-XVI* liburua eman zuen argitara; 2018an, berriz, *La Villamayor de Markina, Elgoibar deitua* argitaratu zuen eta aurtengo udazkenean argitaratuko du *Placencia de Soraluze*, hirukiaren azkena.

Zein puntutan dago liburua?

Azaroan argitaratuko da. 300 ale argitaratuko dira, Soraluzeko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Soraluce Kooperatibak finantzatuta.

***Placencia de Soraluze* Eibarren eta Elgoibarren gaineko liburuen osagarri izango da edo independenteak dira?**

Independenteak. Liburu bakoitza bere dokumentuetan oinarrituta landu dut. Badaude dokumentu gutxi batzuk komunak direnak, baina

herri bakoitzeko liburuaren %90ean herri horretako dokumentuak daude eta herri horri dagokion tratamendua dauka.

Nondik abiatzen da Soraluzeri buruzkoa?

Hasteko, hau herri izan aurretik hemen zer zegoen kontatzen dut, hau da, Hiri Gutuna hartu aurretik oraindik eraikitzeke zegoen inguru hau zelakoa zen. Batik bat, zeintzuk ziren hasiera-hasierako baserriak eta etxeak, azken batean, eurak izan ziren herriaren fundatzaileak. Bigarren atalean, Hiri Gutunari buruzko informazioa dago jasota. 1343an eman zuen Hiri-gutuna Gaztelako erregeak, herria sortzeko. Dokumentu hori, Hiri Gutuna, orain arte ez zen ezagutzen, mundu guztiak esaten zuen galduta zegoela, originala zein kopiak. Hari buruz Esteban Garibai historialari eta errege kronista arrasatearrak emandako erreferentziak bakarrik zeuden, oso motzak. Orain, berriz, Madrilén, Historiako Errege Akademitik aurkitu dut Soraluzeko Hiri-gutunaren kopia bat.

Hortaz, primizia eta guzti dator liburua?

Bai. Orain arte, ez ziren ezagutzen ez Eibarko Hiri Gutuna ezta Soraluzekoa ere. Orain, Soraluzekoaren kopia bat azaldu da eta bertan



Jabi Elortza Gabolatseko etxe aurrean; bistan dauden haren harriak eta beheko egitura Erdi Arokoak dira.

markatzen dira zeintzuk diren herri berri horren mugak. Orain arte zegoena baino informazio gehiago dakar.

Zein mendera arteko historia landu duzu liburuan?

1550. urtera artekoa orokorrean. XVI. mendeko lehen zatia oso garrantzitsua izan zen herriarendako, armagintzarengatik. Hemen demaseko garrantzia izan zuen armagintzak. Europako gerra guztietan erabiltzen ziren pikak, esaterako, hemen egiten ziren eta orduan pikak oso garrantzitsuak ziren. Soraluzen, zubi muturrean zegoen etxe batean, 1490 urterako Iribe abizeneko batek hemen bertan egiten zituen pikak. Sasoi hartan, gerretan su-arma gutxi erabiltzen ziren. Lonbardak izan ziren lehenak, baina erabiltzeko oso zailak ziren; beste su-arma gutxi batzuk ere izan ziren, kulebrinak-eta, baina haiek txikiegiak ziren. Beraz, pikak oso garrantzitsuak ziren. Geroago etorri ziren arkabuzak. Arkabuzek iraultza ikusgarria ekarri zuten, armada guztiak zoratu egin ziren arkabuzekin.

Eta Soraluzen ere fabrikatu zituzten arkabuzak?

Bai. 1500.etik aurrera, 1510ean, 1513an, 1515ean-edo hasi ziren eta gero, hura erabilgarria zela ikusi

zenean, arkabuzen produkzioa izugarri handitu zen. Armagintzari dagokionean, Ramiro Larrañagaren herriari buruzko monografikoan azaltzen den gauzarik antzinakoa armagintzari buruzkoa da. Ni ez naiz sartu hark landutakoetan, beste gauza batzuk landu ditut, adibidez, arkabuzak noiz komertzializatu ziren, zeintzuk ziren arkabuzen gaineko lehenagoko erreferentziak...

1550erako bide horretan, zer gehiago jaso duzu?

Hirugarren atalean, herriak aurrera egin eta gero, Kontzejuaren sendotasun hori jasotzen da. Zelan handik hamarkada batzuetara Gipuzkoko Ermandadea sortu zen -lehenengo antolamendu juridikoa, idatziz adierazia, Getarian bildutako Kontzejuen Ermandade Juntak idatzia izan zen, 1397an-. Ahaide Nagusien kontua ere badago jasota... Ahaide Nagusien sasoian Soraluzen, adibidez, Olasotarrak ziren buruzagiak. Herritarrek zerua irabazteko elizari eman beharreko hamarrenak (garia, animaliak, diruak...) Olasotarrek hartzen zituzten eta aberastu egiten ziren. Elgoibartarrak ziren, ganbotarrak, meznada txikia ere bazuten, indarra zuten.



Jabi Elortza Erdi Arokoa den Ormaetxea etxearen aurrean.

Horrez gain, liburuan, orduko herriko eskribauen, kulturako jendearen, merkatarien... gaineko informazioa jaso dut. Hori guztia oso inportantea zen herri bat sendotzeko. Soraluzeren kasuan, armagintzaren kontuarekin, merkataria, adibidez, mordoa zeuden.

Laugarren atala, berriz, zeri buruzkoa da?

Elizari buruzkoa da laugarren kapitulu. Hiri Gutunean eman zen baimena eliza egiteko, beraz, sasoi hartan hasi ziren egiten. XVIII. mendera arte luzatu dut kapitulu hori, eliza faseka egin baitzuten. Egin zuten azkena korua izan zen, XVIII. mendean. Zergatik landu dudan atal hori? Bada herrian ia ez dago Erdi Aroko arrastorik, dauden gehienak antzinako dorretxeetan eta ermitetan daude. Egia esan, oso gutxi daude eta ez daude egoera onean. Ondo kontserbatutakoak Irureko ermitan daude, ateak eta leihotxoak, aspillerak-eta mantentzen dira. Bestela, herrian ia ez dago. Arregiako etxean bakarrik daude Erdi Aroko arrasto gutxi batzuk. Izan ere, oso zaila da

gordetzea, sasoi hartan eraikitako ia-ia guztia zen egurrezkoa eta dena aldatzen joan den neurrian, asko galdu egin dira.

Arrasto bitxiren bat badu elizak?

Hemengo eskribau batek jaso zuenez, elizaren presbiterioaren alde bietan, elizako aldarea zeinek egin zuen, zeinen laguntzarekin egin zen... esplikatzen zuen bi lapida zeuden. Bata Soraluzeko euskaraz idatzita zegoen, bestea, berriz, latinez. Euskarazko idatzian zer ipintzen zuen ere jaso zuen eskribauak. Gero, 1808an, frantsesarekin, hori kendu egin zuten frantsesek. Daukadan zalantza da ea lapida horiek kendu egin zituzten edo tapatu egin zituzten eta gaur egungo pareten azpian oraindik hor ote dauden.

Azken atala, 1550ari dagokion hori osorik da armagintzari buruz?

Ez, batez ere hemengo leinuei buruzko informazioa dakar azken kapituluak. Adibidez, Santa Ana kaleko Ormaetxea. Hura herria izan aurretik ere bazen. Orduko etxe gehienak egurrezkoak ziren, aldiz, haren izenak zioen moduan, hura Ormaetxea zen, harriz egindako hormak zituen etxea. Iruretarrek ere azaltzen dira liburuan. Bestalde, Baltegieta, Iturribaltzaga izeneko etxeak izan ziren, errota ere izan zen han. Iturribaltzagakoak eskribauak ziren. Haren aurretik, berriz, Arane iturriko etxea dagoen lekuan (Txergorinekoa) Arane deitzen zen beste etxe bat zegoen. Haren aurreko iturriak horregatik du izen hori, baita kiroldegiak ere. Hura ere bota egin zen, beste etxe historiko batzuk bezala. Halako gauzak daude jasota.

Nabarmenduko zenuke bitxikeriaren bat?

Bai. Adibidez, bitxikeria moduan dago jasota, batetik, 1500.etik aurrerako Itsasoi baserriko inbentarioa; hau da, garai hartan zer zegoen Itsasoi baserrian erreminta aldetik, arropa aldetik eta abar. Eta bestetik, beste inbentario bat ere badago jasota, Itsasoikoaren data berekoa, baina Kalebarrengo etxe bati dagokiona. Bien arteko konparazioa egiten dut, hartara ikus daiteke sasoi hartan zer zeukaten baserri batean eta zer herriko etxe batean. Adibidez, bi inbentario horiek ikusita, esan daiteke 1530ean, oraindik, Soraluze Erdi Aroan zegoela, Errenazimentuan bat-batean sartu barik, hemen lehengo ohiturekin eta lehengo trasteekin segitzen zuten.

Libururako jasotako guztia zelan dokumentatu duzu?



Jabi Elortza eliz atariko paretaren aurrean; haren harriak Erdi Arokoak dira.

"HIRI-GUTUNA EMAN AURRETIK ZER ZEGOEN KONTATZEN HASI ETA 1550. ERAINO AILEGATZEN DA LIBURUA"

"HERRIAN IA EZ DAGO ERDI AROKO ARRASTORIK, GEHIENAK DAUDE DORRETXEETAN ETA ERMITETAN"

"ILUSIO HANDIENA EGIN DIDANA MADRILEN SORALUZEEKO HIRI-GUTUNAREN KOPIA BAT AURKITZEA IZAN DA"

Estatuko artxiboetan, batik bat. Chancilleria de Valladolid, Archivo General de Simancas, Madrilgo Historiko Nazionala eta, zeresanik ez, Oñatiko Gipuzkoako Artxibo Orokorrean eta herriko artxiboan, noski. Elizako gauzetarako, berriz, Zaragozara.

Zerk harritu zaitu gehien arakatzen ibili zaren informazio horretatik guztitik?

Madrilen Soraluezko Hiri Gutunaren kopia bat aurkitzea izan da ilusio handiena egin didana. Leku guztietan esaten zuten galduta zegoela. Zenbat denboran ibili naizen ni Simancaseko Artxibo Generalean zoroen pare horren bila! Han beste herri mordotako hiri-gutunak zeudela-eta, ni bila eta bila, baina Soraluezko ez nuen aurkitzen. Chancillerian ere ibilita nago haren bila eta azkenean Madrilen aurkitu nuen. Ez nuen topatzerik espero eta horrek egin zidan ilusiorik handiena.

Zenbat ordu pasatu duzu hau dena egiten, Jabi?

Buf. Ez dago esaterik, batez ere artxiboetan, orduak eta orduak, urteetan. Eta gero hori dena



Jabi Elortza Gabolatseko etxea (Altun erreka ondoan dagoena) atzean duela.

transkribatu egin behar da, beraz, etxean ere bai. **Baina hemendik aurrera, zure lan horri esker, Soraluzek izango du Erdi Aroko bere historiaren gaineko informazioa, dotore batuta, edozeinen eskura; hori ere ez da gutxi.**

Bai, hori bai. Nik beti izan dut buruan hau egitea. Orain dela 25 bat urte, batez ere Estatuko artxiboetan dokumentuak batzen hasi nintzenean, nik buruan baneukan hiruki hori: Eibar, Elgoibar eta Soraluze. Gaiarekin lehenengo interesa Eibartik etorri zitzaidan eta Eibarkoa argitaratu nuen, gero etorri zen Elgoibarko eskaera. Beraz, orain nire herrikoari tokatzen zaio. **Orotara, zenbat liburu argitaratu dituzu?**

15 liburu. Batzuk Jose Antonio Azpiazu historialari eta antropologo oñatiarrarekin, Debakoa, adibidez, *Deba, una villa de vocación marinera y mercantil, siglos XV-XVII*; Donostikoa ere Azpiazuekin. Pello Arrieta historialari elgoibartarrarekin, berriz, beste pare bat, Elgoibarkoak. Bat San Frantzisko elizaren mendeurrenekoari buruzkoa zen eta beste bat Elgoibarko Inazio Bartolome Muguruzak XVIII. mendean egindako plano bat, udalerrikoa. Azken

hori oso kuriosoa da. Toponimo mordoa azaltzen ziren.

Soraluzeri buruzkoak?

Archivos Municipales de Eibar/Soraluze, Mertzedariak ehun urte Soraluzen eta San Rokeren ermita. Horrez gain, herriko hainbat mapa landu ditut: Plaza Berriko iturriaren bide trazadura; Soraluze-Plazentzia XV. mendean, Sabin Etxanizekin eta Ani Elorzarekin (arrebak) eta Soraluzeko toponimoen mapa, Jon Basaurirekin eta Kontrargirekin.

Zein da argitaratu duzun azkena?

Elkanori buruzkoa, Azpiazurekin batera egindakoa eta Real Sociedad Bascongada de Amigos del Paisek enkargatua: *Juan Sebastián Elkano: ingurua, ibilbidea, epika*. Iaz, 2021ean argitaratu zen.

Elkano bogan dago. Zuen kasuan zer jaso duzue liburu horretan?

Gure ahalegina jatorrizko iturriak miatzea izan da, asko eta asko orain arte ezezagunak, jakin nahian zelakoa zen Juan Sebastian Elkanoren inguru guztia. Gauza berriak-edo batu genituen libururako. Adibidez, orain hona ekarri duten Nao

Victoriari buruzko pasarte bat dauka. Orain (irailaren hasieran) hona ekarri duten itsasontziak, haren erreplikak esloran 27 metro ditu. Jatorrizko Nao Victoria, berriz, hemengo ontzioletan egindako itsasontzi bat da eta guk horren gaineko dokumentu historikoak baditugu. Garai hartako itsasontzietan kabitzen ziren eta dokumentatuta dauden upelen neurriekin egin dugu kalkulua eta haren arabera, Nao Victoriak ezin ditu esloran 27 metro izan, 10 bat gutxiago, baizik. Halako gauzak kontatzen ditugu liburuan, artxiboetan aurkitutakoak. Baina artxiboetan ez da ia inor ibiltzen. Pentsa, gu ezagunak gara artxiboetan. Simancasekoan, adibidez, gu eta atzerritarrak ibiltzen gara bakarrik. Izan ere,

horretarako ere bokazioa behar da. Ordu asko eskatzen ditu lan horrek eta jendea ez dago horretarako prest.

Zu, aldiz, liburuak idatzi eta idatzi. Erretiratu ezinean zabilta zuk egiten duzun lanerako jendea falta delako?

Bada igual bai. Guk gure zirkulua eginda dugu, Real Sociedad Bascongada de Amigos del País, Eusko Ikaskuntza... Ezagutzen dudana hango jendeak, inork ez du kobratzen egiten duen lanarengatik, argitaratutakoak publikazio zientifikoak izan arren. Horrela ibiltzen gara. **Soraluzeren gaineko liburua argitaratu eta gero, zer?** Beste enkargu batean lanean nabil azken urteotan, baina nahiago dut ezer ez aurreratzea.

Historialari, idazle eta dibulgatzaile

Orain arte, 15 liburu idatzi ditu Jabier Elortza Maiztegi soraluzetarrak, hiru Soraluzeri buruzkoak (orain argitaratuko duena jaioterriari buruzko laugarren liburua izango da) eta dagoeneko beste enkargu bat dauka eskuartean. Horrez gain, planoak eta mapak ere landu izan ditu, esaterako, 2018an, Erdi Aroko Soraluze zelakoa zen erakusten duen mapa edo 2020an Soraluzeren gaineko mapa toponimikoa, Jon Basaurirekin batera egindakoa.

Dibulgatzaile lana

Eta horren guztiaren osagarri moduan-edo, landutako gai historikoei buruzko hitzaldiak ematen ere ibiltzen da historialari soraluzetarra, dibulgazio lana egiten, alegia. Soraluzen eskaini ditu hainbat, Eibarren eta Elgoibarren ere bai, Deban... eta urrunago joanaz, Elkanori buruzko bere azken liburuaren harira, besteak beste, baita San Telmo museoan ere.



Jabier Elortza hitzaldia ematen San Telmo museoan.



Jabier Elortza Soraluzeko Erdi Aroko mapa erakusten.

Gure Etorkizuna,
Orain eraikitzen da.

Ekonomia modernizatuz.

Sartu etorkizunaeraikiz.eus webgunean
eta ikusi gipuzkoarrok zer egiten ari garen
gure etorkizunaren alde.



GOKI
erreformak



FATXADA BIRGAITZEAK

S.A.T.E.

FATXADA AIREZTATUAK
BIRGAITZE TRADIZIONALA
BALKONEN BIRGAITZEA



ESTALKI ETA TEILATUAK

ERABATEKO BIRGAITZEAK
TERRAZA ETA ESTALKI LAUAK
MAINTENTZE LANAK
SEGURTASUN SOKA FINKOAK



BARNE ERREFORMAK

ETXEBIZITZAK
LOKAL KOMERTZIALAK
BULEGO ETA ENPRESAK
SUKALDE ETA BAINUGELAK



IRISGARritasuna

OZTOPO ARKITEKTONIKOAK KENTZEA
IGOSAILU INSTALAZIOAK
O KOTA



BULEGO TEKNIKOA

ERAIKINEN IKUSKARITZA TEKNIKOA
EFIZIENTZIA ENERGETIKOKO ZIURTAGIRIAK
ERAIKUNTZA PROIEKTUAK

ELGOIBAR
943 74 42 23

SORALUZE
943 12 57 41

BERGARA
943 76 53 42

Aitziber Cortazar, Debegesako Garapen Jasangarria saileko burua:

“Energia Bulegoak lehen pausoak ematen lagundu nahi die erabiltzaileei”

Debegesak ENERGIA BULEGOA garatu egin du eta Aitziber Cortazarrek bertan eskaintzen diren zerbitzuen berri eman digu.

Zein da Energia Bulegoaren funtzio nagusia?

Debabarreneko zortzi udalerriek eskaintzen duten zerbitzua da, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak diruz lagunduta, eta zenbait funtzio ditu. Herritarrei zuzenduriko alderdiari dagokionez, eraginkortasun energetikoa sustatzea eta energia berriztagarriak ipintzea da helburu nagusia.

Horretarako, zer eskaintzen duzue?

Alde batetik, Debegesaren web orrialdearen barnean Energia Bulegoaren atala dago: energia.debegesa.eus. Energia berriztagarrien (panel fotoboltaikoak, panel termikoak, geotermia, aerotermia eta biomasa) eta birgaitze iraunkorraren (teilatuak birgaitzea, igogailua instalatzea edo aldatzea, berogailuen instalazioa...) inguruko oinarrizko informazioa modu didaktikoan jaso daiteke bertan. Gainera, faktura elektrikoa optimizatzeko aholkularitza zerbitzua eskaintzen dugu.

Webguneko informazioaz gain, norbanakoek euren kasu zehatzen inguruko zalantzak argitu dezakete?

Bai. Horretarako bi bide ditugu. Batetik, webgunearen bitartez gurekin harremanetan jarri daitezke inprimaki batzuk betez eta argitu nahi den gaia zehaztuz. Bestetik, 943 82 01 10 telefono-ra deituta hitzordua eskatu daiteke Debegesan, edota email bitartez kontsulta bideratu: agenda2030@debegesa.eus

Energiaren gaia ahoz aho dabil. Garrantzi berezia hartu du gaur egun Energia Bulegoak?

Debegesak aspaldi landu ditu energiaren inguruko gaiak eta, eboluzio naturalari jarraituz, gaur egungo egoerarekin egin du bat. Energiaren prezioak nola dauden ikusita, egia da orain dela ur-



Aitziber Cortazar Debabarreneko Garapen Agentziako Turismo eta Garapen Jasangarria saileko arduraduna da. ARGAZKILARIA

tebete inork egingo ez litzukeen planteamenduak egiten ari direla orain. Zentzu horretan, Energia Bulegoak lehen pausoak ematen lagundu nahi die erabiltzaileei. Esate baterako, komunitate bateko bizilagunek eguzki-plakak instalatu nahi badituzte, zein pausu eman behar duten argitzen diegu, diru-laguntzen inguruko informazioa eskaintzen dugu, tramitazio legalaren ingurukoa... Horretarako, laguntze aldera, kontsulta egiten dutenen aldetik ahalik eta informazio gehien jasotzea komeni da, gero eta erantzunik zehatzena emateko.

Enpresentzako zerbitzuak eskaintzen dituzue?


Bai. Esate baterako, energia fotoboltaikoa ekoizteko duten gaitasuna neurtzen diegu. Azken urtean, 30 enpresa baino gehiagok erabili dute zerbitzua. Orain, turismo sektoreko enpresei energia analisi auditoretza egitea eskaintzen ari gara, energia berriztagarriak ipintzeko zein aukera izan ditzatekeen ikus dezaten.

Bueltan da Antxintxika krosa

Azaroaren 5ean, zapatua, izango da lasterketa; Etxaburueta kaletik abiatuko da eta Bergaran bukatu

Ohi denez, ehunka lasterkari erakarriko ditu Antxintxika krosak. 16:30ean hasiko da; hand-bikean eta gurpildun aulkietan lehiatuko direnak irtengo dira lehenengo. 16:45ean, berriz, patindunen txanda izango da eta 17:00etan abiatuko dira korrikalariak. Kirolariek 10 kilometroko ibilbidea gauzatu beharko dute, gehiena bidegorritik, Bergararaino.

Kroserako izen-ematea zabalik da (kirolprobak.com),



2019ko Antxintxika krosa.

lasterketaren bezperara arte, azaroaren 4an, 22:59ean itxiko dute. Sariei dagokionez, berriz, sei mailatan emango dituzte eta horietako bi sari Soraluzeko lehen gizonezkoarendako eta lehen emakumezkoarendako izango dira; Soraluzeko udal ordezkariak Bergarara bertaratuko dira soraluzetarrei sariak ematera.

Zirkulazioa zubitik

Lasterketa egunari dagokionez, 15:00etarako itxi egingo dute Etxaburueta kalea. Ordurako erretiratuta egon beharko dira Estaziñoko parketik aurrerako ibilgailuak; baita Ola ingurukoak ere, bidegorriaren hasierako etxebizitzaren aurreko aldekoak. Etxaburueta itxita dagoen bitartean, zirkulazioa zubitik bideratuko dute.

Marras taldeak bost kategoria aurten

Domeka honetan hockey taldeko jokalariek gazteenek partidak jokatuko dituzte Arane kiroldegiko frontoian

Domeka honetan, urriaren 30ean, 2013an eta 2014an jaiotako Marras Irriaketa Taldeko hockeyko jokalariek ikasturteko lehen partiduak jokatuko dituzte etxean. Gipuzkoatik, Bizkaitik eta Arabatik etorritako taldeak elkartuko dira Arane kiroldegiko frontoian. Soraluzeko Marras taldeari dagokionez, bi partida jokatuko ditu, lehena 10:00etan Arranoak taldearen kontra eta bigarrena 14:00etan, Burdinola

taldearen kontra. Guztira sei partida izango dira, 10:00etan hasita. Sarrera libre da eta Marras taldeak soraluzetarrak gonbidatu nahi ditu partidak ikustera.

Bost kategoria

Domekako estreinaldiarekin, Soraluzeko Marras Irriaketa taldeak dituen bost kategorietako liga guztiak martxan izango dira. Federatutako taldeek urrian

zehar hasi dute ikasturtea eta partidak jokatzen ere badabiltza. Zehazki, infantil, jubenil eta emakumeen mailako ligetan dagoeneko izan dituzte aurtengo lehen norgehiagokak. "Oraindik Marrasek ez du partidarik irabazi, baina astero dabilta gogoz entrenatzen eta ilusio handiarekin ari dira aurtengo liga prestatzen".

Emakumezkoen talde bakarra

Bestalde, azpimarratzekoa da Marras taldeko emakumezkoen ekipoa, berau da-eta herrian emakumez osatutako kirol talde bakarra. 14 neskaz osatutakoa da, guztiak Soraluzekoak, eibartar bat izan ezik. Aurten osatu da talde modura eta aurten estreinatu dira Euskadiko Ligari.



Aurtengo Bankoa-Abanca DV torneoaren aurkezpena.

Bankoa-Abanca DV torneoa Soraluzen

2012az geroztik, Soraluzeko Pilota Elkartek antolatzen du Bankoa-Abanca DV 2022 pilota torneo entzutetsua

Azaroaren 11n, Bankoa-Abanca DV 2022 torneo entzutetsuaren baitako pilota partidak jokatu dira Arane kiroldegian. 21:00etan hasita, hiru hitzordu izango dira. Emakumezkoetan, eskuz banaka jokatu dute Aldaik (Lea Ibarra) eta Erasunek (Su Berri). Ondoren, Promesa mailan, Zubizarretak eta Landak (Lapke-Oiarpe) eskuz binakakoa jokatu dute Apezetxea eta Arroita (Erreka-Ataun) bikotearen kontra.

Azkenik, senior mailan, Soraluzeko Pilota Elkarteko Muruak eta Iztuetak, aurrez aurre izango dituzte Mata eta J. Lazkoz (Oberena-Irurtzun).

72 pilotari

Getarian, irailaren 17an hasi zen Bankoa-Abanca DV 2022 torneo eta abenduaren 17an Zarautzen bukatuko da. 72 pilotari ari dira lehian, 32 pilotari promesa mailan, beste horrenbeste senior mailan eta 8

emakumezkoetan. Pilotarien artean, Soraluzeko Pilota Elkarteko ordezkaritza ere bada, aurtan, Ander Murua eta Manex Balerdiren eskutik.

Pilota elkartek antolatuta

Aurtan, Bankoa-Abanca DV torneoaren 31.edizioa da. 2012az geroztik Soraluzeko Pilota Elkartek antolatzen du torneo, Aitor Atxotegiren, Iñigo Iruretairen (Beasain) eta Andoni Aldaperen (Mallabia) eskutik.

Soraluzeko Pilota Elkarteko arduradun Aitor Atxotegik gogora ekarri duenez, Juan Luis Ubera elgetarra izan zen txapelketaren sortzailea 1992-1993 denboraldian. 2012. urtean ordea, Soraluzen nagusi mailako pilotaririk ez zegoela ikusita eta Uberak pilota kontuetatik erretiratzeko nahia zuenez, Elgetako Ozkarbi pilota elkarteko pilotari guztiak Soraluzeko elkartera etorri ziren. Klub horretako pilotariak ekartzeaz gain, soraluzetarrak, Uberari erreleboa hartuta, Bankoa-Abanca DV torneo antolatzen hasi ziren, oso-osorik: pilotarien eta bikoteen aukeraketa, herriekin hitzorduak... Oraindik ere horretan dihardute. Eta ondo ari direla dirudi, izan ere, adituen esanetan, torneo hori erakusleho bikaina da pilotariei profesionalerako jautzia ematen laguntzeko.

bertako -REKIN BAI!

igogaluak | ascensores

OROTARIKO ZERBITZUA

100€-tik/hileko

- Baietz mantentze-lan profesionalari
- Baietz benetako 24/7/365 zerbitzuari

GIPUZKOA

943 903 450

www.bertako.eus



Steve Krase & Travellin' Brothers.

Blues hotsak datoz

Aurtengo edizioak lau kontzertu nagusi izango ditu: lehen urriak 30ean, aurkezpenean; eta gainerakoak, azaroaren 17tik 20ra bitartean eskainiko dituzte Herriko Antzokian.

Nazioarteko zein Euskal Herriko blues musikariak ekarriko ditu herrira Blues Hotsak jaialdiaren IV. edizioak.

Steve Krase houstondarrak domekan emango dio hasiera jaialdiari, Travellin Brothers euskal blues taldea lagun hartuta eskainiko duen kontzertuarekin.

Gainerako kontzertuak azaroaren hirugarren astean egindo dira eta horien artean nabarmentzekoak dira Itziar Yagüe & Paul San Martinek, Niko Etxart & Hapa-Hapak (iaz bertan behera utzitako kontzertua) eta Carlton Jumer Smith & The Harrycane Orkestrak eskainiko dituztenak.

Kontzertu nagusi horiez gain, beste ekimen osagarri batzuk ere izango dira. Batetik, kultura beltzaren inguruko 'The Black Woodstock' edo 'Summer of Soul (...Or, When the Revolution Could Not Be Televised)' dokumentala proiektatuko dute; eta bestetik, Soraluzeko Musika Eskolako konboen kontzertua.

Sarrerak salgai

Dagoeneko lehen kontzerturako sarrerak salgai daude Iratxo goxodendan eta gainerako kontzertuetarakoak datozen egunetan jarriko dituzte. Plaentxia.eus-ek kontzertu bakoitzerako bina sarrera zozkatuko ditu.

Egitaraua

MUSIKA Steve Krase & Travellin' Brothers

Steve Krase Texas-ko abeslari eta harmonizista handienetakoak Europa mailan itzal handia duen Travellin' Brothers euskal taldearekin batera joko du.

Urriak 30, 19:00etan Antzokian. Sarrera: 10€ (Iratxo dendan).

FILMA The Black Woodstock



'Summer of Soul' dokumentala, afroamerikar kultura eta musika omentzen duen 1969ko Harlengo Jaialdi Kulturalaren inguruko proiektzioa da.

Azaroak 17, 19:00etan Antzokian. Sarrera: Doan.

MUSIKA Itziar Yagüe & Paul San Martin



Bakarrizketa umoretsua

Azaroaren 11n, barikuan, *Mikrotik...* bakarrizketa umoretsua eskainiko du Nerea Arriola youtuber eta aktore ezagunak. Euskaraldiaren harira sortutako saioak norbere hizkuntza portaeren inguruan hausnartzea eta "euskal hiztunok geure buruaz" barre egitea du helburu. Saioa arratsaldeko 20:00etan hasiko da antzokian.

Dokumentala artzaintzaz

Azaroaren 10ean, Aitor Intxaurrea zeaniztarrak "GR-282 artzaintza naturbidea" izeneko dokumentala proiektatuko du antzokian. Dokumentalak Gipuzkoa, Araba, Bizkaia, Burgos eta Nafarroan 492 kilometrotan zehar grabatutako irudiak jasotzen ditu. Proiektzioa 19:00etan hasiko da.

Aranzadiren hitzaldia

Datorren eguaztenean, Jesus Tapia Aranzadi elkarteko kideak 'Dolmenen ibilbideko 2022ko indusketak' izeneko hitzaldia eskainiko du udaletxeko saio aretoan. Bertan, Tapiak aurtengo urtean mendigaietan egin diren lanak azaldu eta bertan aurkitu diren arrastoen berri emango du. Arratsaldeko 19:00etan hasiko da.



Niko Etxart.

Kantari arabarrak eta piano-jole gipuzkoarrak, Bessie Smith artista mitikoak duela mende bat ospetsu egindako kantuak interpretatuko dituzte.

Azaroak 18, 20:00etan Antzokian. Sarrera: 10€ (Iratxo dendan).

MUSIKA Niko Etxart & Hapa-Hapa

Zuberoarra, 1990tik aurrera bidelagun dituen Hapa-Hapa taldearekin dator, iaz bere 'bluesman' fazeta erakutsiz.

Azaroak 19, 20:00etan Antzokian. Sarrera: 10€ (Iratxo dendan).

MUSIKA Musika Eskolako konboak



Ikasle eta irakasleek musika beltzaren doinuez girotuko dute domeka goiza, 'Musikaren balioa elkarrekin jotzea da' lelopean. **Azaroak 20, 12:30etan Antzokian. Sarrera: Doan.**

MUSIKA Carlton Jumer Smith & The Harrycane Orquestra



Bere kabuz egindako abeslari, konpositore, ekoizle eta aktoreak, musikarako duen grina erakutsiko du soul doinu finen bidez.

Azaroak 20, 19:00etan Antzokian. Sarrera: 10€ (Iratxo dendan).

Hezkuntzan aditu eta ikertzaile

DOKTOREA IZATEAZ GAIN, DEKANO-ORDEA ERE BADA ESTHER CRUZ IGLESIAS

TESTUA UBANE MADERA ZANGITU

ARGAZKIAK: ESTHER CRUZ IGLESIAS

Pedagogian Doktorea da Esther Cruz Iglesias (Soraluze, 1974), Ikasketaren Zailtasunen Esku-Hartzeko Masterduna, ikertzailea eta irakasleen irakaslea. Horretaz guztiaz gain, 2021eko apiriletik, Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultateko dekanoko-ordea ere bada.

Zer moduz dekanoko-orde modura?

Gogorra da. Gipuzkoako Fakultaterik handiena da, sei gradu eta 2.500 ikasle ditu. Oso konplexua da kudeaketa. Nire zeregina da zailtasunak edo arazoak daudenean, horiek

desataskatzea. Bestalde, praktikak kudeatzen ditut, formazioa ematen ibili naiz, lan poltsekin, artikulatuak idazten nabil, irakaslea naiz...

Eta ikertzailea.

Bai, orain arte Ikasguran, baina orain, beste talde batekin elkartu eta Jaurilaritzako Ikasgarria ikerketa taldean nago. Goi-mailako hezkuntzaren inguruko azterketak egiten ditugu eta orain proiektu bat lantzen ere bagabiltza, Bordeleko unibertsitatearekin: Ocean-i3. Helburua gure itsasoa eta kostaldea zaintzea da, plastikoen kutsadura murrizteko.

Hezkuntzan irakasle hasi zinen eta oraindik ere hala zara; zelan?

Hasieran, unibertsitateko irakaskuntza idealizatuta duzu; ikasi duzu, lortu duzu ailegatzea eta ederki. Baina gero konturatzen zara dozentzia planifikatu egin behar duzula, ondo planifikatu ere. Bi orduko saioak betetzeko gauza asko prestatu behar dira eta gauzek beti ez dute uste moduan funtzionatzen. Nik oso gustuko dut, adibidez, ikasleen ekarpenak entzutea, baina hori lortzeko landu egin behar da. Nik gauzak egiten ditut ikasleek parte-hartzeko, iritzia emateko, kritiko izateko...



Esther Cruz Iglesias Euskal Herriko Unibertsitateko bere bulegoan.

Irakasle ona izateko urrezko araua...

Errespetuarekin berba egitea ikasleekin. Entzutea. Edozein adinetan.

Ezgaitasunen Inklusioa eta Hezkuntza Berezia dituzu gustuko...

Nire tesia gaitasunen ingurukoa da eta Ezgaitasuna eta Inklusioa ikasgaia ematen dut. Gaitasun eta desgaitasun mundua elkartu nahi ditut. Adibidez, 2016tik Aspacerekin eta Uliazpirekin ari gara lanean. Nire klaseetan ikasketa-zerbitzuaren metodologia bultzatzen dut: ikasten duten bitartean ikasleek zerbitzu bat egitea, ikasketa baliagarria eta errealagoa izateko.

Adibidez?

Uliazpin sortu dugu Uliamets proiektua, hango erabiltzaileen ametsak betetzen ahalegintzeko. Hori lortzeko, Uliazpiko pertsona bat eta ikasle bat elkartzen ditugu. Adibidez, Uliazpiko batek

argazkiak ateratzera joan nahi zuen, beste batek zinemara, igerilekura... Normalean, ezin dituzte halako jarduerak egin, zeinekin egin ez dutelako. Bada, amets horiek betetzen laguntzen diete nire ikasleek. Aldi berean, Aspacen eta Uliazpin parte hartzen duten ikasleek proiektu horietan parte hartzearen ze gaitasun lantzen dituzten

Lan handia egiten ari zara; sikiera, gustuko duzun horretan?

Nik 26 ikasgai eman izan ditut, unibertsitatean oso zaila baita zure gustuko irakasgaia erakustea. Orain urte batzuk daramatzat nire gustuko gauzak eta gauza berak ematen, horri eutsi nahi diot. Hala ere, etxetik 07:30ean irten eta atzo, adibidez, 20:00etan bueltatu nintzen.

Baina egunero etxera.

Gustura izango nuke pisu bat fakultate parean astegunerako, A8a gogorra da. Baina asteburuak hemen; Soraluzetik

ez nau inork mugituko. Kalera irten, lagunekin trago bat hartu eta deskonektatu... hori hiri handi baten ez duzu.

Soraluzekoa eta Sorakoa...


Semeak jokalaria izan ziren eta ni zuzendaritzako kide, dekanorde sartu arte. Ni beti prest nago Sorari laguntzeko. Uste dut laguntzeko erantzukizuna daukagula. Gutxiago kritikatu eta gehiago kolaboratu.

Euskararekin ere erakutsi duzu atxikimendua.

Nik A ereduan ikasi dut eta orain, berriz, euskarazko klase batetik gaztelaniazkora pasatzean, askotan, gaztelaniazko berbak kostatzen zaizkit. Hala ere, gogorra da ibilbidea. Ikasi nahi nuelako hasi nintzen, oso gustura. Baina gero behartuta ibili nintzen, logikoa denez, Hezkuntzan euskara behar delako; hori gogorragoa da, epeak daude ateratzeko... Baina ni beti prest euskararekin.



Esther Cruz Aspaceko erabiltzaile batekin.



Esther Cruz dekanordearen sarreran.



Zubi Nagusian.

ZORION AGURRAK



Ekain Ariznabarreta
Urriaren 19an 10 urte. Zorionak Ekain! Familia guztian partez, jarraitu beti bezain jator!



Iratxe Emaldi
Urriaren 24an 33 urte. Zorionak Iratxe! Ekain Irati eta etxeko guztien partez, jarraitu irribarre polit horrekin.



Ona eta India Arizaga Fernandez-Hijicos
Urriaren 27an eta Azaroaren 9an, urte bat eta lau urte. Zorionak! Aitxixa eta amamaren sorgintxoei!



Alaia Martinez Fariñas
Urriaren 31an 4 urte. Zorionak txikixa!!! Primeran pasau!! Asko maite zaitugu! Patxo haundi bat etxeko guztien partez!

HILDAKOAK ETA JAIOTAKOAK

Hildakoak
Jose Maria Mendia Aizpiri
Ignacio Lascurain Aramberri
Buenaventura Rodriguez de la Cruz

Jaiotakoak
Ez da jaiotakorik egon

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; bi bide dituzu:

Internet
Plaentxia.eus-en erabiltzailea sortu eta <http://plaentxia.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra.
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta hilabeteko azken ostiralean aldizkarian.

Posta elektronikoa
Mezua bidali zorionagurrak@pilpilean.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

OHARRAK

Lan eskaintza

Harakina behar da, zatiketan, obratzailean eta jendeari arreta ematen eskarmentua duena.
Euskara jakitea baloratuko da. 665 74 48 48.

ESKELAK

ESKELA

Iñaki Laskurain Aranberri

2022ko urriaren 11n hil zen, Granadan, 65 urte zituela

Umetatikan lagun zaitugu hazi gera elkarrekin lagun hitzaren zentzu osoa uler daiteke zurekin. Zenbat bizipen, zenbat oroipen.

Agur, Iñaki, agur zoaz udazkenarekin zure zati bat geratuko da gutako bakoitzarekin.

Gabolatseko zure Kuadrila.

ESKELA

Jose Mari Mendia Aizpiri

2022ko urriaren 5ean hil zen, 75 urte zituela

Bidea sentitzen erakutsi zenigulako bidean sentituko zaitugu

Zure familia.

34 PIL-PILEAN

URTEURRENA



Luis Maria Heriz Garmendia “Koldo”



2013ko azaroaren 7an hil zen, 71 urterekin.

“Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakienak ikasten ez duelako dakienak
hitzegiten ez duelako baizik”



Sendia.

ESKELAK JARTZEKO: 699 86 87 29
edo ***eskelak@pilpilean.eus***

Hil diren herritarren eskelak, oroigarriak eta urteurrenak
argitaratzen dira aldizkarian eta Plaentxia.eus webgunean.

Tarifak (BEZ barne):

- Arrunta: 75 / Bazkideek 60
- Handia: 120 / Bazkideek 96

Pil-pilean eta Plaentxia.eus: irakurrienak Soraluzen.

XXVI. Gaztañerre azoka

Azaroak 12,
zapatua

10:00 Azokaren irekiera
Txistularien eta trikitilarien
kalejira

12:00 Ekitaldia azokan: dantza
saioa, omenaldia, sari banaketa,
bertsolariak eta herriko sagardo
lehiaketa

15:00 Herri-babajana karpan

19:00 Erromeria Bide Batez
taldearekin karpan

23:00 Erromeria Fan&Go
taldearekin Gaztetxean

Azaroak 10, eguna

19:00 Dokumentala: "GR-282
artzaintza naturbidea" Herri
Antzokian



DEBEMEN



Blues Hotsak

www.blueshotsak.eus

2022 Azaroak 17-20

SORALUZE

HERRIKO ANTZOKIA

OSTEGIA
30
14:00

STEVE KRASE feat. TRAVELLIN' BROTHERS



AZAROA
17
OSTEGUNA
14:00

THE BLACK WOODSTOCK
FILMA

Nina Simone, Sly & the Family Stone, B.B. King, Stevie Wonder...



AZAROA
18
OSTIRALA
20:30



ITZIAR YAGUE & PAUL SAN MARTIN
BESSIE SMITH
IN MEMORIAM

AZAROA
19
LARUNBATA
20:00

NIKO ETXART & HAPA-HAPA



AZAROA
20
IGANDUA
19:00
12:30



CARLTON JUMER SMITH
& THE HURRICANE ORQUESTRA

MUSIKA ESKOLA - KONBOAK